



AHOTS-KORDAKO POLIPOA ETA LARINGEKO BIOPSIA

Ebakuntza osterako zaintza eta gomendioak

Ebakuntzaren egunean, hartu dieta bigun eta epela (purea, salda, arraina, tortilla, kroketak, jogurtak eta abar).

Hurrengo egunetan:

- Ez erre.
- Ez hartu alkoholdun edaririk, gasdun edaririk eta jaki pikanterik.
- Eman atseden ahotsari (ez hitz egin), alta hartzean ematen dizuten txostenean adierazten den denboran.
- Beharbada agujetak izango dituzu gorputz osoan, eta molestiaren bat lepoan.
- Datozen egunetan hartu tenperatura arratsalde-gau aldean eta goizean.
- Eman dizkizuten argibideen arabera jarraitu zure ohiko tratamendua.
- Sendagairen bat agindu edo eman badizute, alta hartzean adierazi dizuten moduan hartu.

LARRIALDIETARA JOATEKO ARRAZOTIAK:

- Irensteko edo arnas hartzeko zailtasunak badituzu.
- 38 °C-ko sukarra edo altuagoa baduzu.
- Behin eta berriro oka egiten baduzu.
- Mina baduzu eta aringarriekin kentzen ez bada.
- Odoljario handia baduzu.

